

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2018/19

**Ikastegia**

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25784 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Hezkuntza

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Ikasgai honek JFKZetako graduko oinarrizko konpetentzia guztien garapenean lagundu nahi du eta bertako G003 eta G004 konpetentzia orokorrekin dago zuzenago erlazonatuta. Hau da, "jarduera fisikoak eta kirolak baldintzatzen dituzten faktore sozialak ezagutu eta ulertzea" eta "jarduera fisikoak eta kirolak egiteak gizakiarengan alderdi sozialetan dituen eraginak ezagutu eta ulertzea". Modu berean, graduko M0CM01, M01CM02 eta M05CM01 konpetentzia espezifikoen garapenean lagunduko du. Hau da, "jarduera fisikoa eta kirola eta hauek egitea baldintzatzen duten faktore sozial eta kulturalak ezagutu eta ulertzea", "jarduera fisikoa eta kirola egiteak pertsonen heziketa ikuspegian eta alderdi psikosozialean dituen eraginak ezagutu eta ulertzea", eta "kirol formazio eta gorputz heziketako ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak diseinatu, garatu eta ebaluatzea, pertsona ororen banakako ezaugarriak eta testuingurukoak aintzat hartuz".

Ikasgai honetan gorputz heziketarekin erlazonaturiko oinarrizko kontzeptuak aurkeztu eta landuko dira. Abiapuntu horretatik ikasleen prestakuntzan eta garapenean analisia eta gogoeta gaitasunak sustatuko dira, hurbileko planteamenduetan gizabanakoekin zein oinarrizko gizarte-akordioekin koherenteak eta adeitsuak diren ekintzak gauzatzeko. Funtsean, etorkizuneko profesionalak kalitatezko gorputz heziketa garatzeko gai izatea sustatuko da ikasgai honen bidez, aniztasunaren arreta, aukera berdintasuna, ekitatea, genero ikuspuntua, kulturartekotasuna, etab. jorratu eta landuz.

Ikasgai honek konpetentzia sozialak eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren eremu sozialaren garapena graduko ondorengo ikasgaiekin partekatzen du: JFKren Irakaskuntza (3. mailan), JFKren Soziologia (2. mailan) eta JFKren Historia (1.mailan).

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**IKASGAIKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

GE1.Jarduera fisikoaren eta kirolaren pedagogiako oinarrizko kontzeptuak eta teoriak ezagutu eta ulertzea, alde zuzeneko aurretiko okertutako edo itxuraldatutako ikuskerak hauteman eta bideratzeko, modu horretan kontzeptu guztiak dagokien testuinguruan egoki kokatuz.

**IKASKUNTZA EMAITZA**

Ikasgai honetan landutako kontzeptuak eta terminologia zuzen erabiltzen dituzten landu eta aurkezten dituen banakako edo taldekako lanetan eta ebaluazio probetan, ahoz nahiz idatziz.

GE2. Jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez esku-hartze hezitzaileak dituen inplikazioak ezagutu, ulertu eta analizatzea, erreferentzia den ikuspegiaren oinarrizko paradigma edo diskurtso teorikoaren arabera.

**IKASKUNTZA EMAITZA**

Arlo honetako esku-hartzearekin erlazonaturiko diskurtsoei eta ikuspuntu teorikoei dagozkien ideiak modu koherente eta egokian defendatzen dituzten landu eta aurkezten dituen banakako edo taldekako lanetan eta ebaluazio probetan, ahoz nahiz idatziz.

GE3.Gorputz heziketaren arloan esku-hartze profesionalerako ereduak aztertu eta baloratzea, pertsonaren eta oinarrizko gizarte-akordioaren errespetua sustatuz (aniztasunaren arreta, aukera berdintasuna, genero ikuspegia, kulturartekotasuna, gatazken bitartekaritza&#8230;)

**IKASKUNTZA EMAITZA**

Pertsonarekiko errespetuan eta oinarrizko giza-akordioetan oinarritzen diren eredu profesionalak defendatzen dituzten landu eta aurkezten dituzten banakako edo taldekako lanetan eta ebaluazio probetan, ahoz nahiz idatziz.

GE 4.Arlo honetako berezko informazioa bilatzea eta erabiltzen ikastea. Sortzen diren berrikuntzetan eta eztabaida berrietan eguneratuta egoteko, eta egoera berrietara eta praktikan agertzen diren arazoetara egokitzeko eta erantzuteko gai izateko.

**IKASKUNTZA EMAITZA**

Arlo honetan informazioa bilatzeko oinarrizko iturriak identifikatzeko gai da, eta modu egokian erabiltzen dituzten landu eta aurkezten dituzten banakako edo taldekako lanetan eta ebaluazio probetan, ahoz nahiz idatziz.

**ZEHARKAKO KONPETENTZIAK:**

G018. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea.

**IKASKUNTZA EMAITZA**

Ikasleak IKTak egoki erabili eta aplikatzeko gai izango dira, jarduera fisiko eta kirolaren arloko esku-hartzeetan sorturiko beharrei eraginkortasunez erantzuteko.

G022 Ariketa profesionalean zuzentasunez aritzeko beharrezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea, eta horien arabera jardutea

### IKASKUNTZA EMAITZA

Modu kritikoan baloratzen ditu jarduera fisikoaren eta kirolaren hezkuntza eremuan heziketa helburu duten esku hartze ez koherenteak. Printzipio hau landuko da, baina ez kalifikatu.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

### 1. TESTUINGURUA - ABIAPUNTUA: GORPUTZ HEZIKETA

- Gorputz heziketa edo heziketa fisikoaren testuingurua
- Lanbidearen izaera eta kokapena
- Oinarrizko baliabide eta erremintak

### 2. HEZKUNTZA ARLOKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- Kontzeptuen esanahiak
- Hezkuntzaren funtzioak
- Hezkuntza sistema: curriculum

### 3. KALITATEZKO GORPUTZ HEZIKETARA BIDERATUTAKO IKUSPUNTUAK

- Zer da kalitatea? Arrazionaltasuna gorputz heziketako formazioan
- Kalitatezko gorputz heziketarako ikuspegiak: kritikoa, humanistikoa, lankidetzakoa

### 4. KALITATEZKO GORPUTZ HEZIKETA ESKAINTZEKO ORIENTABIDEAK

- Gorputz heziketako eredu pedagogikoak: lankidetzarako metodologia, eredu ulerkorra, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, zerbitzu-aprendizaia, beste metodologia batzuk

### 5. TALDE ZAURGARRI EDO/ETA KALTETUAK GORPUTZ HEZIKETAN

- Garapenean nahasmenak eduki dituzten pertsonak (HADN/ TDAH, LNZ/ TEL, EAN/TEA, ANE/ DEA, Atxikimenduaren nahasmena&#8230;),
- Kultura-aniztasuna(ijito-etniako nerabeak, beste kultura ezberdin batzuetakoak&#8230;)
- Jatorri sozio-emozionaleko arazoak dituzten nerabeak.

### 6. ANIZTASUNARI ARRETA: ESTEREOTIPOEN DESERAIKITZE PROZESUA GORPUTZ HEZIKETAN

- Genero ikuspegia
- Inklusioa eta ekitatea

## METODOLOGIA

Ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa garrantzitsua da ikasgai honen garapenerako. Horretarako honako metodo eta teknikak erabiliko dira, parte-hartze aktiboan, bereziki, indarra jarriz: irakaslearen azalpenak, banakako eta taldekako jarduerak, arazoaren ebazpena, proiektuen diseinua, dokumentuen irakurketa eta azterketa, analisi eta ebaluazio jarduerak eta mintegiak.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	5	10						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	45	23	22						

#### Legenda:

M: Maistrala      S: Mintecia      GA: Gelako p.      GL: Laborategiko p.      GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikokoak      TA: Tailerra      TI: Tailer Ind.      GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Banakako lanak % 15
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### 1) EBALUAZIO JARRAITUA

## EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMAREN BIDEZ EBALUATU AHAL IZATEKO IRIZPIDEAK:

(%70) Garatu beharreko proba batean (azterketa)

(%30) lanak (pertsonalak eta taldekakoak).. Lan hauetaik: banakako lanak (%15.a) eta taldekako lanak (%15.a)

Ikasgaia bi zatitan banatuko da:

a) Notaren % 70: saioetan garatutako edukiak ebaluatuko dira. Aurkezpen eta klasean emandako azalpenez gain, jarduerak, klasean erabilitako material osagarriak eta baliabideen erabilera ebaluatuko da.

b) Notaren % 30: taldekako lanak eta lan pertsonalak baloratuko dira. Era presentzialean egingo dira, ahal den heinean, saioetan. Banaketa: taldeka (%15) eta banaka (%15).

(\*) Bi atal hauetako bakoitza gainditzea beharrezkoa da, gutxienez 5 batekin, ikasgai hau gaindituta ahal da izateko. Nota partzialak ikasturte akademiko berean soilik gordeko dira.

## DEIALDIARI UKO EGITEA:

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio ikasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko ikasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko ikasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Ikasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da.

## 2) AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA

ikasleak eskubidea izango du ikasturtean zehar landutako eduki guztietan ebaluatu ahal izateko, bai teorikoak, bi praktikoak, azkeneko proba batean. Azkeneko proba bi atalez osatuta egongo da, zati batean eduki teorikoak eta beste zatian praktikoak.

## DEIALDIARI UKO EGITEA

- Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko ikasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio ikasgaiaren ardura duen irakasleari.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### ORIENTAZIOAK:

Ezohiko deialdian, egin beharreko proba bi zatiz osatuta egongo da: zati teorikoa eta praktikoa.

Ebaluazio jarraituaren sistema hautatu baina ikasgaia bere osotasunean gainditzea lortu ez duten ikasleak ezohiko deialdira aurkeztu ahal izango dira eta gaindituriko ataletako notak gordeko dira (ikasturte akademiko berean zehar).

### DEIALDIARI UKO EGITEA:

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- E-gelaren bitartez bideratutako materiala ezinbestekoa izango da ikasgaiaren jarraipena egiteko.

- Irakurgaiak. Ikasleak saio bakoitzari dagokion irakurgai eraman behar du ikasgelara (paperean), bestela ikasleak ezin izango du saio horretan parte hartu, eta asistentzia falta jarriko zaio.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

- AUBERT, A; DUQUE, E; FISAS, M; VALLS, R. (2004). Dialogar y transformar. Pedagogía crítica del siglo XXI. Barcelona: Editorial Graó.
- CARRANZA, M Y MORA, J (2003). Educación Física y valores educando en un mundo complejo. Edt. Graó.
- CECCHINI, J.A. (1996). Personalización en la educación física. Tratado de Educación Personalizada. Madrid: Ediciones Rialp.
- CONTRERAS JORDAN, O.R. (2000). La formación inicial y permanente del profesor de educación física. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- DEVÍS, J. Y PEIRÓ, C. (1992). Nuevas perspectivas curriculares en educación física, la salud y los juegos modificados. Barcelona: INDE.
- ESCARTÍ, A (Coord.) (2005). Responsabilidad personal y social a través de la educación física y el deporte. Barcelona: Graó.
- FRAILE ARANDA, M. (2004). Didáctica de la Educación Física. Una perspectiva crítica y transversal. Madrid: Biblioteca Nueva.
- FRAILE ARANDA, M.; LOPEZ PASTOR, V.M; RUIZ OMEÑACA, J.V; y VELAZQUEZ CALLADO, C. (2008). La resolución de conflictos en y a través de la educación física. BARCELONA: Inde.
- FERNÁNDEZ-RÍO, J. y VELAZQUEZ, C (2005). Desafíos Físicos Cooperativos. Sevilla: Wanceulen. GARCIA HOZ, V. (coord.). (1996). Personalización en la educación física. Madrid: Rialp.
- GONZALEZ, C. Y LLEIXÁ, T. (coords). (2010). Educación Física. Complementos de formación disciplinar. Barcelona: Graó.
- KIRK, D. (1990). Educación física y curriculum. Universitat de Valencia
- LÓPEZ PASTOR, V.M; MONJAS AGUADO, R; PÉREZ BRUNICARDI, D. (2003). Buscando alternativas a la forma de entender y practicar la educación física escolar. Barcelona: INDE.
- LLEIXA, T. (coord.). (2002). Multiculturalismo y educación física. Barcelona: Paidotribo.
- LLEIXA, T. y Soler, S. (2004). Actividades físicas y deporte en sociedades multiculturales. ¿Integración o segregación?. Barcelona: ICE. Universitat Barcelona.
- PIEDRA, J. (Coord.). (2013). Géneros, masculinidades y diversidad. Educación física, deporte e identidades masculinas. Barcelona: Octaedro.
- PIEDRA, J. (2016). Deporte y género. Manual de iniciación. Barcelona: Inde.
- SCRATON, S. (1995). Educación física de las niñas: un enfoque feminista. Madrid: Morata. TINNING, R. (1992). Educación física: la escuela y sus profesores. Valencia: Universitat de València. VAZQUEZ, B. (1989). La educación física en la educación básica. Madrid: Gymnos.
- VAZQUEZ, B. (coord.). (2001) Bases educativas de la actividad física y el deporte. Madrid: Síntesis.
- VELAZQUEZ, C. (2004). Las actividades físicas cooperativas. Una propuesta para la formación en valores a través de la educación física en las escuelas de educación básica. México, D.F.: Secretaria de Educación Pública.
- Velázquez, C. (Coord.) (2010). Aprendizaje cooperativo en Educación Física. Fundamentos y aplicaciones prácticas. Barcelona: INDE.
- Velázquez, C. (2012). La pedagogía de la cooperación en Educación Física. Valladolid: La peonza
- VELAZQUEZ, C. (2013). Análisis de la implementación del aprendizaje cooperativo durante la escolarización obligatoria en el área de Educación Física. Valladolid: Universidad de Valladolid.
- <https://docs.google.com/viewer?a=v&pid=sites&srcid=ZGVmYXVsdGRvbWFpbXZHVjYWNpb25maXNpY2FzaXxneDozYjFIMzA4MDNjYzNhMzEw>.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- ASTRAIN, C.; CORTES, N.; BARBERO, J.I. (1996). Miedos y conflictos que se presentan al profesor novato deseoso de llevar a la práctica una educación física alternativa. Revista Española de Educación Física y Deportes, Vol.3, nº 2, 21-26.
- ARNOLD, P.J. (1991). Educación física, movimiento y curriculum. Madrid: Morata.
- BANTULA, J. (1998). Juegos motrices cooperativos. Barcelona: Paidotribo.
- CHOMSKY, N. (2002). La (des) educación. Barcelona: Editorial Critica.
- GONZÁLEZ SUÁREZ, A (ed.) (2005). Avances en Ciencias del Deporte. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- VAZQUEZ, B. (1989). La educación física en la educación básica. Madrid: Gymnos.

### Aldizkariak

- Tándem
- Apunts
- Agora
- Revista de Educación Física
- Habilidades Motrices
- Perspectivas de la educación física

- Aula de Innovación Educativa
- Cuadernos de Pedagogía
- Physical Education & Sport Pedagogy.
- Sport, Education and Society
- Uztaro

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

- UPV/EHU Biblioteca. Datu baseak: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteca/datu-baseak>
- Revista digital Educación Física y Deportes. En: <http://www.efdeportes.com>
- RIDEF. Revista Internacional de Didáctica de la Educación Física.
- Retos/Nuevas perspectivas de Educación Física, Deporte y Recreación:
- Revista Internacional de Ciencias del Deporte. <http://www.cafyd.com/REVISTA/ojs/index.php/ricyde>
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila: <http://www.euskadi.eus/eusko-jauraritz/hezuntza-saila/>
- Berritzegunea, gorputz heziketako irakasleen ataria: <http://www.gorputzheziketa.hezkuntza.net/web/guest/baliabideak>
- M.E.C: Recursos de educación física: <http://recursos.cnice.mec.es/edfisica/>
- Xarxatic. Hezitzaile baten bitartez hezkuntza eta teknologia berrien gaia jorratzen da: <http://www.xarxatic.com/>

#### **OHARRAK**

Mintegien datak: 18, 22, 25, 27 eta 30.asteak